



Eusko Jaurkitzaren  
Informatika Elkarte

Sociedad Informática  
del Gobierno Vasco

## **Erabiltzailearen eskuliburua.**

1.0 bertsioa.

osteguna, 2018.eko apirilak 5.

## **Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa.**

Medikuek kontsulta egiteko.

Dokumentu hau EJIE Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen jabetzakoa da, eta bertako edukia KONFIDENTZIALA da. Ezin da ez osorik ez zatika kopiatu, ez beste inori erakutsi, ez eta sortu zenerako helburuetatik at dauden bestelako helburuekin erabili ere, EJIEk lehenago idatzizko baimenik eman gabe. Kontratu baten araupean entregatzen bada agiri hau, kontratu horrek berariaz adierazten duen moduan erabili beharko da, eta ezingo da erabilera-esparru horretatik irten. EJIEk ez du erantzukizunik, dokumentuaren edizioan erroreak edo hutsuneak baleude.



Dokumentu hau sortzeko erabilitako txantiloia honako lizentziapean lizentziatu da:

[ARINbide](#) by [EJIE](#) is licensed under a [Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 3.0 Unported License](#).

Bertsioa	Data	Aldaketen laburpena	Egilea:	Nork onartua:
1.0	2018/04/05	Lehenengo bertsioa		

## Edukia.

<b>1</b>	<b>Sarrera</b> .....	<b>4</b>
1.1	Sistemaren helburuak.....	4
1.2	Funtzioak .....	4
1.3	Sarbidea.....	4
<b>2</b>	<b>Identifikatzeko moduak</b> .....	<b>5</b>
<b>3</b>	<b>Erregistroaren kontsulta</b> .....	<b>7</b>
3.1	Manifestua sinatzea .....	8
3.2	Erregistroaren kontsulta.....	11
<b>4</b>	<b>Laburpena</b> .....	<b>13</b>

# 1 Sarrera.

## 1.1 Sistemaren helburuak.

Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroarako aplikazio hau medikuntzako profesionalek erabil dezakete, erregistroan indarrean dauden aurretiazko borondate-agiriak kontsultatzeko, hartara, eguneroko lanean errazagoa izan dakien haiek ezagutzea eta aplikatzea.

## 1.2 Funtzioak.

Medikuntzako profesionalentzat da, indarrean dauden aurretiazko borondate-agiriak kontsultatzeko eta deskargatzeko.

## 1.3 Sarbidea.

Sendagileak esteka hau erabil dezake sistemara sartzeko:

<https://www.osakidetza.euskadi.eus/aa98aRegistroVoluntadesWar/solicitud/consultaRegistro?locale=eu>

Erregistroan begiratu ahal izateko, erabiltzaileak medikua dela egiaztatu behar du, identifikazio-gailu elektronikoa bat erabiliz (ziurtagiri elektronikoa onartua eduki behar du):

- NAN elektronikoa.
- Osakidetzako profesionalen txartela.
- Itsasontzi-jokoa.

## 2 Identifikatzeko moduak.

Pantaila hau erabiltzen da identifikazioa egiteko. Ikusiko duzue, ziurtagiri elektronikoa edo itsasontzi-jokoa erabiliz egin daiteke:

### Ziurtagiri elektronikoaren bidez sartzeko.

Hasi aurretik, begiratu ea:

- Ordenagailuak ondo identifikatzen duen txartel-irakurgailua.
- Ziurtagiri elektronikoa ondo sartuta dagoen irakurgailuan.

**jarraitu** botoia sakatu, eta ziurtagiria baieztatzeko pantaila agertuko da. Baieztatu ziurtagiria, **Ados** botoian klik eginez. Jarraian, konektaturiko ziurtagiriak dakarren PINa sartu, eta berriro **Ados** sakatu.



**Itsasontzi-jokoaren bidez sartzeko.**

Aurretiaz aktibaturik eduki behar duzu, bestela, ezingo duzu erabili. Ez baduzu asmatzen, “Galderarik arruntenak” atalean begiratu, edo esteka honetan sartu: [http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/juego\\_barcos\\_activar/eu\\_def/index.shtml](http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/juego_barcos_activar/eu_def/index.shtml)

Eskatzen zaizkizun datuak sartu identifikazio-pantailan:


- Erreferentzia-zk. / NAN / AIZ.
- Pasahitza.
- Koordinatuak.

**jarraitu**

botoia sakatuz, datuak baieztaturik utziko dituzu.

### 3 Erregistroaren kontsulta.

Erregistrora sartzeko bidea zabaldu baino lehenago, manifestua sinatzeko pantaila agertuko zaizu. Nola sartu zaren arabera, aukera bat baino gehiago dago:

- Osakidetzako txartel profesionala erabiliz sartzen bazara, ez duzu manifestua sinatu beharrik.  botoia sakatu, eta zuzenean erregistroaren kontsultara joango zara. [3.2 atalari](#) jarraitu.

[Aurretiazko Borondateen Erregistroa](#) Erregistroaren kontsulta

#### Erregistroaren kontsulta

---



#### Manifestuaren sinadura

Idazki hau sinatzearekin batera Aurretiazko Borondateen Erregistroa egin eta inskribatzeko den Aurretiazko Borondateen Dokumentura sartuko zara. Aipatutako informazioa, Aurretiazko Borondateen Dokumentuaren egilelea atenditzen duen medikuak baino ezingo du ikusi, pazienteak bere nahia adierazi ezinako egoera batean dagoenean, eta horren berri jakitea beharrezkoa denean garrantzizko erabaki klinikoak hartzeko (Aurretiazko Borondateen Erregistroa sortu eta arautzen duen azaroaren 4ko 270/2003 Dekretuaren 14. artikulua).

Eskuratuko duzun informazioa, osasun-legeriaren eta izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko arautegipean dago. Hori dela eta, Aurretiazko Borondateen Erregistroarako sarbide oro monitorizazio-gai da, segurtasunarekin edo bidegabeko erabilerarekin zerikusia duten hausteak kontrolatuak izan daitezke.

Momentu horretatik aurrera, eskuratuko duzun informazioa erabiltzeagatik erabateko erantzukizuna zure gain hartuko duzu, eta bere konfidentzialtasuna bermatzera behartuta egongo zara. Datuok, legeak aurreikusitako asistentziako suposamenduekin zerikusirik ez duen beste helburu baterako erabiltzen badira, edo konfidentzialtasunaren betebeharra bete gabe erabili edo jakinarazten badira, zu zeu izango zara egindako arau-hausteen erantzulea.

Aurretiazko Borondateen Erregistrora sarbidea izateko beharrezkoak diren baldintzen gaineko informazioa jaso dudala aitortzen dut eta, aldi berean, onartu eta neure gain hartzen ditut, erabateko ezagutza eta erantzukizunarekin, konfidentzialtasun eta lanbide sekretuaren betebeharrekin ezartzen dizkizaten obligazio guztiak, baita horiek ez betetzetik sor daitezkeen erantzukizunak ere.

- Izenpek onarturiko beste txartelen bat badarabilzu, manifestua sinatzeko eskatuko zaizu.

### 3.1 Manifestua sinatzea.

Manifestua onartzeko eta sinatzeko, **Sinatu** botoia sakatu.

[Aurretiatzko Borondateen Erregistroa](#) Erregistroaren kontsulta

Erregistroaren kontsulta

**Manifestuaren sinadura**

Idazki hau sinatzearekin batera Aurretiatzko Borondateen Erregistroa egin eta inskribatzeko den Aurretiatzko Borondateen Dokumentura sartuko zara. Aipatutako informazioa, Aurretiatzko Borondateen Dokumentuaren egilelea atzitzen duen medikuak baino ezingo du ikusi, paziente bere nahia adierazi ezinezko egoera batean dagoenean, eta horren berri jakitea beharrezkoa denean garrantzizko erabaki klinikoak hartzeko (Aurretiatzko Borondateen Erregistroa sortu eta arautzen duen azaroaren 4ko 270/2003 Dekretuaren 14. artikulua).

Eskuratuko duzun informazioa, osasun-legeriaren eta izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko arautegipean dago. Hori dela eta, Aurretiatzko Borondateen Erregistroarako sarbide oro monitorizazio-gai da, segurtasunarekin edo bidegabeko erabilerarekin zerikusia duten hausteak kontrolatuak izan daitezke.

Momentu horretatik aurrera, eskuratuko duzun informazioa erabilteagatik erabateko erantzukizuna zure gain hartuko duzu, eta bere konfidentzialtasuna bermatzera behartuta egongo zara. Datuok, legeak aurreikusitako asistentziatzko suposamenduekin zerikusirik ez duen beste helburu baterako erabiltzen badira, edo konfidentzialtasunaren betebeharra bete gabe erabili edo jakinarazten badira, zu zeu izango zara egindako arau-hausteen erantzulea.

Aurretiatzko Borondateen Erregistroa sarbidea izateko beharrezkoak diren baldintzen gaineko informazioa jaso dudala aitortzen dut eta, aldi berean, onartu eta neure gain hartzen ditut, erabateko ezagutza eta erantzukizunarekin, konfidentzialtasun eta lanbide sekretuaren betebeharrak ezartzen dizkidaten obligazio guztiak, baita horiek ez betetzetik sor daitezkeen erantzukizunak ere.

“Sinadura ziurtagiriarekin” izeneko pantaila agertuko da:

Sinadura ziurtagiriarekin
egoitza elektronikoa



Ziurtagiriarekin sinatu ahal izateko, Idazki-desktopt aplikazioa instalatuta izan behar duzu zure ordenagailuan. Behin baino ez duzu instalatu beharko.

Instalatuta ez baduzu, Idazki-desktopt aplikazioa deskargatu ahal dezakezu. [Idazki-desktopt instalatuta daukazu ala ez egiaztatu](#)

Aplikazioa instalatuta baduzu, sakatu [Jarraitu](#).

i Ohiko galderak

Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2012ko ekainaren 27ko Aginduak onetsi du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren sinadura elektronikoaren eta ziurtagirien politika.

sakatu eta, argibideei jarraituz, Idazki-desktopt aplikazioa jaitsi eta instalatu.



**Sinadura** ziurtagiriarekin **egoitza elektronikoa**

Ziurtagiriarekin sinatu ahal izateko, Idazki-desktop aplikazioa instalatuta izan behar duzu zure ordenagailuan. Behin baino ez duzu instalatu beharko.

Instalatuta ez baduzu, Idazki-desktop aplikazioa deskargatu ahal dezakezu. [Idazki-desktop instalatuta daukazu ala ez egiaztatu](#)

**Deskargatu**

Aplikazioa instalatuta baduzu, sakatu Jarraitu.

**Jarraitu**

**Ohiko galderak**

Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren **2012ko ekainaren 27ko Aginduak** onetsi du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren sinadura elektronikoaren eta ziurtagiriaren politika.

Sinadura digitalak mahaigainerako aplikazio bat darabil. Sinatu baino lehenago, hura jaitsi eta instalatu (behin besterik ez), administratzaile-baimenak erabiliz. Oraindik ez baduzu instalatu, sinaduraren pantailan bertan duzu lizenperen web-orrira eramango zaituen lotura, zure sistema eragilerako aplikazioa deskarga dezazun. Xehetasun gehiago nahi? ikus *Eranskina*.

Instalaturik baldin baduzu, **Jarraitu** sakatu eta, hurrengo pantailan, sakatu **Sinatu**, manifestuaren sinadurara iristeko.

**Sinadura** ziurtagiriarekin **egoitza elektronikoa**

Ziurtagiriarekin sinatzeak aukera ematen dizu dokumentuak digitalki sinatzeko, bai eta administrazioarekin elektronikoki tramitatzeko ere.


Prozesuak minutu batzuk iraun dezake

**Atzera** **Sinatu**

**Ohiko galderak**

Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren **2012ko ekainaren 27ko Aginduak** onetsi du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren sinadura elektronikoaren eta ziurtagiriaren politika.

Aukera bat baino gehiago baldin baduzu, hauta ezazu zer ziurtagiri nahi duzun sinatu. Jarraian, aukeratutako ziurtagiriaren PINa sartu.



Manifestua sinatzen duzunean, hasi zaitezke erregistroan kontsulta egiten. Kontsulta bat egin nahi duzun bakoitzean sinatu beharko duzu manifestua.

## 3.2 Erregistroaren kontsulta.

Aurretiazko borondateen agirien bilaketa doitzeko, xehetasun batzuk eskatuko zaizkizu.

Aurretiazko Borondateen Erregistroa Erregistroaren kontsulta

### Erregistroaren kontsulta

SNS kodea

Izena  Lehen abizena  Bigarren abizena

NAN / AIZ / Pasaporteak  Jaioteguna

Ez dago erregistririk.

Sartu xehetasunak,  botoia sakatu, eta bilaketaren emaitzak agertuko zaizkizu, zerrenda batean bilduta.

Aurretiazko Borondateen Erregistroa Erregistroaren kontsulta

### Erregistroaren kontsulta

SNS kodea

Izena  Lehen abizena  Bigarren abizena

NAN / AIZ / Pasaporteak  Jaioteguna



<b>ENRIQUE SIERRA GIL</b>	37611341Q SIGI0450417002	<a href="#">↓ RNIP dokumentua</a>
<b>ENRIQUE SIERRA MONROY</b>	78075118P BBBBBDG698668	<a href="#">↓ ABD Dokumentua</a>

1 orrialdetik

Agiririk sortuberrienak erakustearren, sistemak bilaketa bi erregistrotan egiten du: RNIPn eta Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan. Estekan jartzen du non aurkitu duen. Agiria jaisteko, klik egin.

Beste kontsultarik egin nahi baduzu, berriro eskatuko zaizu manifestua onartzeko edo, darabilzun txartelaren arabera, sinatzeko.

## 4 Laburpena.

- Sartzeko:
  - Identifika zaitez.
  - Konekta zaitez ziurtagiri elektronikoaren bidez.
  - Baiezta ezazu ziurtagiri elektronikoa (onartzea).
  - Sartu PINa.
- Kontsultatu erregistroan.
  - Manifestua erakutsiko zaizu:
    - Osakidetzako txartel profesionala baldin badaukazu,  sakatu.
    - Beste txartelen bat baldin badaukazu,  sakatu manifestua sinatzeko.
  - Bilaketarako xehetasunak sartu, bilaketa egin, eta hor duzu emaitza.